

ANDRA MARIA KORAPILO-ASKATZAILEA

Santa Maria Jaungoikoaren Presentziz betea,
zure bizitzan zehar onartu zenduan
apaltasunez Aitaren borondatea
eta deabruak ezin izan zinduzan bere sareetan
harrapatu eta korapilatu.

Zure Semearen ondora joanda,
arriskueta gure alde zagoz beti,
eta alaitasunez eta pazientziz
erakutsi ederra emon deuskuzu
gure bizitzako korapiloak askatzen.

Eta gure Amatzat betiko geratzean,
zuzentzen eta argitan ipinten dozuz
Jaunagaz batzen gaituen hartuemonak.

Santa Maria, Jaungoikoaren eta gure Ama,
Zuk ama-bihotzez askatzen dozuz
gure bizitza tratatzen daben korapiloak,
zure eskuetan hartu gaizuzala, arren, eskatzen deusugu
eta Jaunagazko hartuemonak eragozten deuskuezan
bizitzako mataza guztietatik askatu.

Zure graziz eta bitartekotasunez, ene Ama eta Erregina,
zure erakutsi maitekorrez gatx guztietatik askatu gagizuz;
holan, nahaste eta oker guztietatik aske,
nonahi eta noiznahi Jaunagaz topo egin dagigun,
gure bihotzak Beragan tinko egon daitezcan
eta gure anai-arrebetan beti Bera zerbidu ahal daigun.